



EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA

2024-2025 ikasturtea (2024ko irailetik 2025eko abuztura egindakoak)

Uharteko Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez, euskararen ikaskuntza diruz lagunduko du, beti ere, jarraiturik honako

OINARRIAK

LEHENA.- Deialdiaren xedea.

- 1.1. Deialdi honek arautzen dituen beken xedea da euskara ikasteak sortzen duen gastua finantzatzea. Diru-laguntza hauek 2025. urteko aurrekontuko 3350-48000 – *Hizkuntza Normalizazio Transferentziak* diru-sailaren kontura joango dira. Xede honetarako, hasiera aurrekontua 2.000 eurotakoa da.
- 1.2. Edozein kasu, hasierako kreditu kopuru horri aurrekontu-partida horretako beste deialdi batzuetako soberakinak, gehitu ahal izango zaizkio halakorik egongo balitz.

BIGARRENA.- Diru-laguntza eskatzeko baldintzak.

2.1. Honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak eskatu ahaliko dute euskara ikasteko beka:

- a. 16 urtetik gorakoa izatea, edo 2025ean zehar 16 urte betetzea.
- b. Uhartan erroldatua egotea, gutxienez, diru-laguntza eskatzen den data kontuan hartuta, urtebete lehenagotik, eta ikastaroa irauten duen bitartean.
- c. Indarrean dauden xedapenak ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena ematen den unean.
- d. Ikastaroaren eskola orduen %80tik gorako asistentzia izatea.
- e. Nafarroako Gobernuak 'Euskara ikasteko helduentzako banakako laguntzen deialdian' eskaera egin izana (laguntza eskatzen den ikastaroaren modalitatean) eta behintzat, tramitazioan onartua izateko baldintzak bete izana. Titulartasun publikoko ikastetxeetan ikasten duten eskatzaileek ez dute baldintza hori bete behar (Nafarroako Gobernuak ez dituelako diruz laguntzen ikastetxe horietako ikastaroak).
<https://www.euskarabidea.es/euskara/euskarabidea/dirulaguntzak/euskara-ikasteko-helduentzako-norbanakoen-laguntzak>

2.2. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira:

- a. Administrazio publikoren bateko langilea izanik, euskalduntze plan bereziren batean sartuak daudenak.
- b. Aurreko bi ekitaldietan Uharteko Udalarekiko betebeharrak bete ez dituztenak edo urratu dituztenak, diru-laguntza jasotzaile edo lankidetzat-hitzarmenen sinatzaile gisa.

HIRUGARRENA.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

3.1. Diruz lagunduko dira euskara ikastea helburu duten ikastaro mota guztiak: estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta auto-ikaskuntzak.

3.2. Eskatzaileek bi deialditan bakarrik jaso ahalko dute beka maila bereko ikastaro batengatik. Hau da, aurretik lagundutako maila bigarrenaz lagundu ahalko da ez gehiagotan.

3.3. Ez dira diruz lagunduko joan-etorri gastuak, liburu eta material gastuak eta ikastaroan edo euskaltegian ikasleak jarduera akademikoaren osagarri moduan egindako bertze edozein jarduerengatik gastuak.

LAUGARRENA.- Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

4.1. Eskabideak 2025eko irailaren 1etik 30era aurkeztuko dira. Eskabiderekin batera deialdi honetako bosgarren oinarrian ezarritako agiriak eta informazioa erantsi beharko da.

4.2. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da.

4.3. Aurkeztutako eskabidea deialdi honetan ezartzen diren baldintzak edo agiriak beteko ez balitu, eskatzaileari, gehienez ere, hamar eguneko epe luzaezinean horiek aurkezteko eskatuko zaio eta jakinaraziko zaio, hori egin ezean, eskabidea bertan behera utziko zaiola, aldez aurretik eginiko ebazpena bidez Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 71. artikuluan adierazten duen bezala.

4.4. Eskabideak Uharteko Udalaren egoitza elektronikoan edo Herritarrek Hartzeko Bulegoan (OAC) aurkeztu beharko dira.

BOSGARRENA- Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiri eta informazioa.

5.1. Eskabidearekin batera ondoren aipatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztu beharko da:

- a. Eskatzailearen NANren zenbakia.
- b. Ikastaroa antolatzen duen erakundearen ziurtagiria, ikastaroaren baldintzak zehazten dituen -iraupen datak, maila, ordu kopurua eta ikastaroaren kostua-, bai eta eskatzaileak hartutako eskola orduen ehunekoa.
- c. Matrikularen ordainagiria (banketxeak egindakoa edo ikastaroa antolatzen duen erakundearen egiaztagiria) non matrikularen %100 ordainduta agertuko den.
- d. Diru-laguntza jasotzeko nahi den bankuko zenbakia (IBAN).
- e. Euskarabideari ikastaro beragatik dirulaguntza eskatu izanaren agiria.

SEIGARRENA.- Eskabideen azterketa.

6.1. Aurkeztutako eskabideak Euskara Zerbitzuak baloratuko ditu, eta honek ebazpen proposamena egiteko ofizioz burutuko ditu datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkoak estimatzen dituen jardunbideak.

6.2. Onartutako eskaera bakoitzari emanen zaion dirulaguntza-kopurua izanen da hark matrikulagatik ordaindutako kantitate bera, beste erakunde ofizialetatik jasotakoa (Euskarabideatik, esaterako) deskontatua.

6.3. Dirulaguntza kopuruak ezin izanen du 600 euro baino gehiagokoa izan eskatzaile bakoitzarentzat.

6.4. Beken eskaera urte batekoa izanen da, eta ematea baldintzatuta egonen da eskatu duen ariketa ekonomikoan Udalak duen aurrekontua izateari. Ikastaro estentsiboek lehentasuna izango dute, eta deialdia ikastaro horietarako ebatzi ondoren, geratzen den saldoa trinko eta barnetegietarako banaketa egiteko erabiliko da.



6.5. Edozein kasutan, eta aurrekontu izatearen arabera, Udalak beste irizpide batzuk aplikatuko ditu, behar izanez gero, hala nola eskatzaile kopurua eta bakoitzari egokitutako kopurua, kantitate horren banaketa proportzionala eta bidezkoa egin ahal izateko. Azken hau aplikatuz gero, egokitutako kantitatean moldaketak suerta daiteke.

ZAZPIGARRENA.- Eskabideen ebazpena.

7.1. Euskara Zerbitzuko arduradunak eskabide guztiak aztertu ondoren, txosten bat egingen du zehaztuz onartutako eskabideak eta dagokion diru-kopurua eta baztertutakoak eta horien arrazoia.

7.2. Aipatu txostena oinarri, diru-laguntzak Alkatetzaren Ebazpena bidez emanen dira.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpena emateko epea.

8.1. Ebazpena, gehienez ere, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta bi hileko epean emanen da.

8.2. Epe hori pasatzen bada inolako ebazpenik eman gabe, eskatzaileak eskabidea ezeztatua bezala ulertu ahalko du.

BEDERATZIGARRENA.- Jakinarazpena edo argitaratzea.

9.1. Kontzesio ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie 2011ko abenduaren 22ko (251 zenbakiko NAOn argitaratua) Udal Ordenantza Orokorrean ezarritakoaren arabera.

9.2. Kontzesio ebazpena parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaio eta bertan deialdia, egitaraua eta aurrekontu kreditua zehaztuko da, bai eta onuraduna, emandako kantitatea eta xedea. Ebazpena Uharteko Udalaren Iragarki Oholean argitaratuko da.

9.3. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurso hauetakoren bat jarri ahalko da aukeran:

- a. Berraztertze helegitea, egintzaren organo egileari berari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b. Administrazioarekiko auzi-helegitea, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien epaitegiari edo sailari zuzendua.
- c. Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.

HAMARGARRENA.- Diru-laguntzen ordainketa.

10.1. Emandako diru-laguntzaren ordainketa burutuko da diru-laguntzak ematen dituen ebazpena egin eta biharamunetik kontatuta hilabeteko epean.